

EXCERPTA

30. zenbakia

azaroa-1988

gaiak

orrialdeak

Greko-euskarazko gramatika- konposaketa(Orixe).....	585
Hesiodo-ren Teogonia.....	586-587
S.Joan Krisostomo eta paganoen ohiturak eta pentsakera.....	588-589
Plinio Gaztea(eskutitzak).....	590-591
Euskal herrietako armarriak (latinezko idazkunak).....	592
Definitiones,etymologiae,explicationes, e sancti Augustini scriptis depromptae.....	593-596
Definitiones,etymologiae,explicationes, e sancti Jeronimi epistolis depromptae.....	597-600
Grezia-ko Mitologia (barne orrietako eraskina)	

GREKO-EUSKARAZKO GRAMATIKA-KONPOSAKETA

ΔΙ =gaitz,-ez(Ikus - ezezkoa,zailtasuna)

dysálthEtos=sendagaitz

dysánektos=yasangaitz

dýskolos=eskurakaitz

dysagOgos= " "

dýsOros=ezorduko

dysaithEtos=minberakaitz(de poca sensibilidad)

dyspnoia=asneke,arnasgaitz

Orixe,1942

(jarraitzeko)

- 265 Θάυμας δ' Ὀκεανοῖο βαθυρβείτας θύγατρα
 ἠγάγατ' Ἠλέκτρην ἢ δ' ὠκείαν τέκε Ἴριν
 ἠΰκόμους θ' Ἀρπυίας Ἀελλώ τ' Ὀκυπέτην τε,
 αἱ β' ἀνέμων πνοιῆσι καὶ εἰωνοῖς ἅμ' ἔπονται
 ὠκείης πτερύγεσσι· μεταχρόνιαι γὰρ ἄλλον.
- 270 Φόρκυι δ' αὖ Κητῶ Γραίας τέκε καλλιπαρήγους
 ἐκ γενετῆς πολιάς, τὰς δὴ Γραίας καλέουσιν
 ἀθάνατοι τε θεοὶ χαμαὶ ἐρχόμενοι τ' ἄνθρωποι,
 Περφρηδῶ τ' ἔϋπεπλον Ἐνωῶ τε κροκόπεπλον,
 Γοργούς θ', αἱ ναλοῦσι πέρην κλυτοῦ Ὀκεανοῖο
 ἐσχατιῇ πρὸς νυκτός, ἐν Ἐσπερίδες λιγύφωνοι,
 Σθεννώ τ' Εὐρυάλη τε Μέδουσά τε λυγρὰ παθοῦσα.
 Ἡ μὲν ἔην θνητή, αἱ δ' ἀθάνατοι καὶ ἀγήρω,
 αἱ δύο· τῇ δὲ μὴ παρελέξατο Κυανοχαίτης
 ἐν μαλακῷ λειμῶνι καὶ ἀνθεσι εἰαρινοῖσιν.
- 280 Τῆς δ' ὅτε δὴ Περσεὺς κεφαλὴν ἀπεδειροτόμησεν,
 ἐκδορε Χρυσάωρ τε μέγας καὶ Πήγασος ἵππος.
 Τῷ μὲν ἐπώνυμον ἦεν, ὅτ' Ὀκεανοῦ περὶ πηγὰς
 γένθ', ὃ δ' ἄορ χρύσειον ἔχων μετὰ χερσὶ φιλησιν.
 Χῶ μὲν ἀποπτάμενος προλιπὼν χθόνα, μητέρα μῆλων,
 ἔκετ' ἐς ἀθανάτους· Ζηνὸς δ' ἐν δώμασι ναίει
 βροντήν τε στεροπὴν τε φέρων Διὶ μητιόεντι.

Taumante-k Elektra, Ozeano isuri sakonaren alaba, har-
 tu zuen emaztetzat. Beronek Iris arina sortu zuen eta
 adats ederdun Harpiak, Aelo eta Okipite; hauek, hegoei
 azkar eraginez txoriei eta haize indartsuari darraie,
 eguratsean gora igotzen bait dakite. Keto-k Phorkis-en
 gandik masail ederdun Graiak sortu zituen, jaiotzetik
 ile urdinak. Graiak deitu zituzten jainko hilezkorrek
 eta lurreratu diren gizonek: Penphredo, soineko ederdu
 na, Enio, azafrai koloreko soinekoa duena eta Gorgonak,
 Ozeano entzutetsuaz haraindikoak, Gauaren azken muturr
 ean bizi direnak, ahots ozendun Hesperideak bizi diren
 tokian; Steno, Euriale eta Medusa, zorigaitz handia jas-
 an zuena. Azkenengo hau hilkorra zen eta beste biak
 hilezkorrak eta zahartu-ezinak. Jainko ile beltzduna
 harekin etzan zen zelai bigun batetan, udaberriko arro-
 sen artean.

Harexegandik sortu ziren, Perseo-k burua moztu zionean,
 Krisaor handia eta Pegaso zaldia. Halaxe zuen honek i-
 zena Ozeanoren iturri ondoan jaio zelako, eta besteak
 esku maitagarrietan urrezko ezpata zeukalako. Pegaso-k
 hegaldi batez, ardien ama den lurretik alde egin zuen
 hilezkorren artera. Zeus-en jauregian bizi da eta jain-
 ko arretatsu honi ostotsa eta oineztagia eramaten
 dizkio.

Πρὸς τὸν

εἰσιν οἱ τῶν Ἑλλήνων φιλόσοφοι, οἱ εἰκὴ καὶ μάτην τὴν κοινὴν ἀναίσχυ-
 τίαν ζηλώσαντες; (τί γὰρ ὄφελος τοῦ κατακλίσσθαι ἐν πίσφῃ, καὶ τοιαῦ-
 τα ἀσελγαίνειν ὕστερον;) οἱ καὶ δακτυλίους, καὶ φιάλας, καὶ θεράπον-
 τας, καὶ θεραπευτὰς, καὶ πολλὴν ἄλλην περιεβάλλοντο φαντασίαν, εἰς ἑκα-
 τέραν ἀμετρίαν ἐκπίπτοντες;

S. Joan Krisostomo

ἀλλὰ μεθύοντες καὶ γαστριζόμενοι καὶ
 μύρων ὄζοντες, καὶ τῶν ἐν τῇ σκηνῇ πορνευομένων γυναικῶν οὐδὲν ἄμει-
 νον διακέμενοι, καὶ πανταχόθεν ἑαυτοὺς καταμαλακίζοντες, καὶ εὐγει-
 ρώτους τῶ διαβόλῳ ποιοῦντες

Non daude orain, bada, philosopho grekoak, arinkeriaz e-
 ta ergelkeriaz lotsagabekeria kinikoan aritu zirenak?
 Zein arrazoi zuten upela batetan sartzeko eta gero ho-
 rrelako lotsagabekeriak egiteko? Eta besteak, eraztunak,
 morroiak eta neskameak eta ez dakit nongo harropuzke-
 ria zekartzatenak, neurrigabekeria batetik bestera ero-
 riaz?...

...Gu, berriz, orditurik, asebetterik eta ukendu-usaina
 dariogula, teatroan lizunki ari diren emakumeen alde-
 an ezer gitxi bereizten garela; edonon bigunkeriatan
 moteldurik eta geure buruak deabruarentzat menpera-e-
 rrazak eginik...

 (Mateo deunari buruzko homiliak, X, 4-5)


C. PLINIVS CORNELIO TAGITO SVO S.

Ridebis, et licet rideas. Ego ille quem nosti apros tres et quidem pulcherrimos cepi. "Ipse?" inquis. Ipse. non tamen ut omnino ab inertia mea et quiete discederem. Ad retia sedebam; erat in proximo non uenabulum aut lancea, sed stilus et pugillares; meditabar aliquid enotabamque, ut, si manus uacuas, plenas tamen ceras reportarem. 2 Non est quod contemnas hoc studendi genus; mirum est ut animus agitatione motuque corporis excitetur; iam undique siluae et solitudo ipsumque illud silentium, quod uenationi datur, magna cogitationis incitamenta sunt. 3 Proinde, cum uenabere, licebit auctore me ut panarium et lagunculam, sic etiam pugillares feras; experieris non Dianam magis montibus quam Minervam inerrare. Vale.

(Ehiza aldian, sareak zabaldu ondoren, zer gertatuko itxaroten dagoen bitartean, oholtxoak eta stiloa eskuetan, lanean ari da)

Barre egingo duzu; bai, bai, egizu. Neronek, zuk dakizun honek, hiru basurde hatzeman ditut, eta ederrak, hala fede! "Nork, eta zeuk"?, esanen duzu. Bai, neronek; eta egoneango atsedenaldiri guztiz utzi gabe. Sareen ondoan eserita nago; hurbilean ez azkonik, ez lantzarik, stiloa eta oholtxoak. Zerbait hausnarrean nerabilen eta idazten ari nintzen, esku hutsik etorri behar izanez gero, argizariak, behintzat, beterik ekartze ko. Ez uste ikasteko modu hau gitxiestekoa denik, gero; berebizikoa duzu, gorputzaren higieraz eta eragiaz gogoari ere eragiteko. Hasteko, basoz inguratuta egotea, bakardadea eta ehizaldian den isiltasuna bera ere oldozmenaren zirikatzaile handiak dira. Beraz, ehizatan zoazenean, neuk diotsut, ogi-otartxoak eta urontzia ez ezik, oholtxoak ere bai eroan egikezuz. Iku siko duzu nola Minerva ez dabilen mendietan Diana baino gitxiago. Agur.

STILUS: marfilezko edo metalezko eztena, argizariz estalitako oholtxoetan idazteko. Goiko aldea zapala izaten zen, idatzitakoa ezabatu ahal izateko, oholtxoak berriro erabiltzeko.




López de Cerain

(ENCICLOPEDIA AUÑAMENDI)

LATINEZ(bietan): AVE MARIA

EUSKARAZ: AGUR MARIA

URUGUAY-ko euskal abizena



Litamendia

KERBERO
Κέρβερος

Hades-ko zakurra, hildakoen erresuma zaintzen zuten monstretako bat, biziei bertaratzen galera zuten, eta batez ere, irteera ezinezkoa egiten zuten. Hauxe izaten zen gehien bat agertzen zen monstro horren irudia: hiru zakur-buru, buztantzat suge bat, eta gainera kaldean, zut, ainitz suge-buru. Berrogei eta hamar buru zituela ere esaten da, edo ehun, ere bai. Infernuko ate an kateaz loturik zegoen eta gogoak izutzen zituen bertara zihoaztenean. Euristeo-k Herakles-i ezarritako lanetatik bat hauxe izan zen: Kerbero-ren bila infernuetara joan eta Lurrera ekartzea.

Herakles haraxe abiatu zen, lehenengo Eleusis-en misterioetan ihardunez. Hades-ek utzi egin zion Kerbero Lurreratzen, baldintza honekin, baina: armarik erabili gabe menpera zezan. Herakles jo eta ke aritu zen harekin borrokan eta ia ia itorik menperatu zuen. Gero Euristeo-rengana joan zen. Izutu egin zen Euristeo eta lehenengo lekura bihurtzeko agindu zion. Geroago Orpheo-k Kerbero lotu zuen.

Kerbero Equidna-ren eta Tifon-en semetzat daukate. Ortro-ren anaia da, Geriones-en zakur izugarriarena, a legia, eta Lerna hidrarena eta Nemea-ko lehoiarena.

Τῇ δὲ Τυφάονά φασι μιγήμεναι ἐν φιλότῃτι·
 δεινὸν θ' ὕβριστήν τ' ἀνεμὸν ἐλικώπιδι κούρῃ·
 ἣ δ' ὑποκυσαμένη τέκετο κρατερόφρονα τέκνα.
 Ὀρθὸν μὲν πρῶτον κύνα γείνατο Γηρυονῆι·
 δευτέρου ἀΐτις ἔτικτεν ἀμήχανον, οὗ τι φατειὸν
 Κέρβερον ὠμηστήν, Ἄϊδεω κύνα χαλκείφωνον,
 πεντηκοντακέφαλον, ἀναιδέα τε κρατερόν τε·
 τὸ τρίτον Ἴδρην αὐτίς ἐγείνατο λυγρὰ ἰδυίαν
 Λερναίην, ἣν θρέψε θεὰ λευκώλενος Ἥρη
 ἀπλητον κοτέουσα βίη Ἑρακλήϊν.

(HESIODO-ren TEOGONIA)

Cerberus hæc ingens latratu regna trifauci
 Personat, adverso recubans immanis in antro.
 Cui vates, horrere videns jam colla colubris,
 Melle soporatam et medicatis frugibus offam
 Objicit. Ille fame rabida tria guttura pandens
 Corripit objectam atque immania terga resolvit
 Fusus humi totoque ingens extenditur antro.
 Occupat Æneas aditum custode sepulto
 Evaditque celer ripam irremeabilis undæ.

420

425

(P. Virgilii Maronis "Aeneidos" lib. VI)

εἰ γὰρ ἐγὼ τάδε ἦδε' ἐνὶ φρεσὶ πευκαλίμησιν,
 εὐτέ μιν εἰς Ἄϊδαο πυλάρταο προὔπεμψεν
 ἐξ Ἑρέβευς ἄξοντα κύνα στυγεροῦ Ἄϊδαο,
 οὐκ ἂν ὑπεξέφυγε Στυγὸς ὕδατος αἰπὰ ρέεθρα.

(Homero-ren "Iliasena"; VIII, 366...)

637 «Herakle.—Laerte'ren seme, Zeus'en leiñuko! Odis, maltzurkerietan azkar! Doakabe ori! Adu txarren batek zarabiltz apika aurrean, eguzki-izpiak argi egisten artean neu be erabilli nindunaren antzekoren batek. Zeus Kronida'ren seme izan arren, ezin-esan alako gaitzak jasan bear izan nebazan, neu baiño gitxiago zan gizaki baten mendean egonik, lan neketsuak agindu oi eustazalako. Bein batean ona bialdu nindun txakurra atera nengion, beste zer guztiak baiño neketsuago egingo yatala, uste izanik; eta nik, Hermes'ek eta Atene, ontz-begidunak la-gunduta, Hade'ra eroan eta andik atera egin neban.

(Homero-ren "Odisea"; XI.—Aita Santi
 Onaindia-k euskarara itzulia; 1985;)

Bilbo.

Quid mirum? ubi illis carminibus stupens

Demittit atras bellua centiceps

Aures, et intorti capillis

35

Eumenidum recreantur angues?

(HORATIUS, "Carmina", Liber II; XIII)

Ilud Echidneae memorant e dentibus ortum
esse canis; specus est tenebroso caecus hiatu,
est uia decliuus, per quam Tiryntius heros
restantem contraque diem radiosque micantes
obliquantem oculos nexis adamante catenis
Cerberon adtraxit, rabida qui concitus ira
inpleuit pariter ternis latratibus auras
et sparsit uirides spumis albetibus agros;
has concrese putant nactasque alimenta feracis
fecundique soli uires cepisse nocendi,
quae quia nascuntur dura uiuacia caute,
agrestes aconita uocant; ea coniugis astu
ipse parens Aegeus nato porrexit ut hosti.

(P.Ovidi Nasonis "Metamorphoseon" lib.VII,)
versus:408...

DEFINITIONES, ETYMOLOGIAE, EXPLICATIONES, E SANCTI AUGUSTINI SCRIPTIS DE PROMPTAE.

(Orainartekoak abedez azaldu ditugu, lehendik denak irakurriak bait geneuzkan; hemendik aurrerakoak, ordea, nahasirik emanen ditugu, falta zaizkigun liburuak irakurri eta aurkitu ahala. Denak bildutakoan, liburu batean ordenaturik, orrazturik eta jakingarriz hornidurik eskainiko ditugu)

157 **ANALOGIA**: "Non intelligentes neque advertentes, quomodo verba de rebus aliis ad res alias transferantur propter aliquam similitudinem etiam in locutionibus quotidianis de visilibus et notissimis rebus; quanto magis ut nobis ineffabilia qualitercumque dicantur, quae dici sicuti sunt, omnino non possunt? Nam et homo alterum hominem per quem solet agere quidquid agit, brachium suum appellat: et si ei auferatur dolens dicit: Brachium meum perdidit; et ei qui abstulerit, dicit: Brachium meum mihi abstulisti."

(In Joannis Evangelium Tractatus, LIII-3)

Hau ulertzeke eta ohartzeko: nola berbak gauza batzuetatik beste gauza batzuetara aldatzen diren, antzeko zerbait dela eta, baita eguneroko esakeretan ere, ikusgarri eta ondo ezagunak diren gauzetan. Are gehiago a dierazgaitzak egiten zaizkigunetan zelanbait esan ahal izateko, diren bezalaxe esatea zaila egiten denean. Halaxe, bada, gizonak egiten duen oro beste gizon

baten bidez egiten badu, bere besoa deitzen du halako a. Eta kentzen bazaio, atsekabeturik esaten du: Ene besoa galdu dut. Eta kendu dionari, aldiz: Neure besoa kendu didazu.

158 **NEUTROA** : "Unam petii a Domino, hanc requiram (Ps. 26, 4). Nec dicit quid unam, vel quam unam, de qua dixerit, Hanc requiram; sed femininum genus quasi pro neutro positum est. Inusitate quippe dictum est, Unam petii, hanc requiram; ubi non subauditur quae illa una sit: quod usitatius diceretur, Unum petii a Domino, hoc requiram, ut inhabitem in domo Domini. In his enim neutris non solet exigi neutrum quod subaudiendum sit, ut puta, unum bonum, aut unum donum, vel si quid huiusmodi; sed quidquid illud est, etiamsi masculino vel feminino genere nuncupetur, vel sine ullo nomine illius generis quibuslibet verbis insinuetur, solita omnino locutione sub genere neutro intelligitur. (Enarrationes in Psalmos, 118, XV, 9)

Gauza bakarria eskatu diot Jaunari eta hauxe bilatuko dut (Ps. 26, 4). Eta ez dio zer edo zelakoa den bakar hori, hauxe bilatuko dut esan duen hori; femeninoa hor neutroaren ordean ipini da. Bakan esana bait da Gauza bakarria eskatu dut eta hauxe bilatuko. Bakar hori zer nolakoa daitekeen aditzera ez da ematen eta. Hor beretzkoagoa izango zatekeen. Zer bakarria (neutroz) eskatu diot Jaunari eta horixe bilatuko dut, Jaunaren etxean bizi nadin. Honelako neutroetan ez da beharrezkoa aditzera ematen dena neutroa izatea, esaterako, gauza

on bat edo emaitza bat, edo horren antzeko beste edo zer. Dena dela, maskulinoz edo femeninoz izendatutako zerbaite izan, edo ezetariko generorik ez duen ezein izen izan, hor aipatu nahi dena, gehientsuenetan erabili ohi den esakera genero neutroz joaten da.

● Euskaraz GAUZA edo ZER BAKARRA esanez, besterik gabe ez da argitzen arazoa. Horregatik tartekatu dut parentesi artean... (neutroz)... Latinez, ordea, begiratu baitetan ohartzen gara: unAM (femeninoz), unUM (neutroz). Osterantzeko arrazoiketari zuzen dabil San Agustin; haxe da latin hizkuntzaz eta.

159 **PROSOPOPEIA** : "Talibus locutionibus etiam abundat nostra consuetudo, cum dicimus laetum diem, quia nos laetos facit; et pigrum frigus, quia nos pigros facit; et fossam caecam, quia nos eam non videmus; et linguam politam, quia verba polita facit; postremo etiam quietum ab omnibus molestiis tempus dicimus, in quo nos ab omnibus molestiis quieti sumus." (De Genesi contra Maniqueos, Lib. I, 22-34)

Gerok ere horrelako esakera asko dugu, egun alaia diogunean, gu alai ipintzen gaituelako; hotz nagia, gu nagiegiten gaituelako; hobi itsua, guk ikusten ez dugulako; eta mihi ederra, hitz ederrak (egiten) dituelako; eta baita ezetariko neke-ardurarik gabeko aldia ere, aldi barea, gu edozein neke-arduraz bare gaudenean.

- Ohar zaitez: VERBA POLITA FACIT=berba politak egiten ditu.

Verbum facere=berba,hitz,egin;klasikoek ere erabiltzen dute.

(jarraitzeko)

DEFINITIONES, ETYMOLOGIAE, EXPLICATIONES, E SANCTI JERONIMI EPISTOLIS DE PROMPTAE.

1 **BERTZELE**: "Igitur Vercellae Ligurum civitas haud procul a radicibus Alpium sita, olim potens, nunc raro habitatore semiruta".

(1, "Ad Innocentium presbyterum de septies percussa", 3)

Hontaz, Bertzele Ligurtarren hiria Alpeetako hegaletatik ez urruti, behinola indartsua; gaur biztanle bakan batzurekin, ia behea jota.

2 **GEZURTIAK**: "Antiquus sermo est: "mendaces faciunt, ut nec vera dicentibus credatur".

(6, "Ad Iulianum diaconum Aquileiae", 1)

Antxinako esakera da: "gezurtiek lortzen dute, egiazkoa diotenei sinistu ez egitea".

3 **ABESLARIAK**: "Nam, ut ait Flaccus in satira: "omnibus hoc vitium est cantoribus, inter amicos" rogati ut nunquam cantent, "iniussi nunquam desistant".

(idem, ibidem, 2)

Flako-k satiran dioenez: "akats hau dizute abeslari orok, lagunen artean eskatu eta ez dute inoiz abestuko; eskatu gabe, ordea, ez dakite isiltzen.

4 **HIZKUNTZA BARBAROAK** : "Nunc cum vestris litteris fabulor, illas amplexor, illae mecum loquuntur, illae hic tantum Latine sciunt. Hic enim aut barbarus semisermo discendus est aut tacendum est".

(7, "Ad Chromatium, Iovinum, Eusebium", 2)

Orain zuen eskutitzekin ari naiz hizketan, eurok laztantzen ditut, eurok mintzatzen dira nirekin. Eurok bakarrik bait dakite hemen latinez. Hemen edo erdi hizkuntza barbaro bat ikasten duzu edo isilik egon behar.

5 **PERGAMINOA** : "Et si aliquis Ptolomeus maria clausisset, tamen rex Attalus membranas e Pergamo misserat, ut penuria chartae pellibus pensaretur; unde pergamenarum nomen ad hanc usque diem tradente sibi invicem posteritate servatum est".

(idem, ibidem)

Eta Ptolomeoren batek itsasoak hertsu izan balitu, Attalo erregek, aldiz, Pergamo-tik larruak bidaliko zituzkeen, paperaren eskasia larruez estaltzeko. Hortik gorde da gaur egunera arte pergamino izena, ondorengoek izena batak besteari pasaeraziz.

6 **ERREFRAU HERRIKOIAK** : "Accessit huic patellae iuxta tritum populi sermone proverbium dignum operculum, Lupicinus sacerdos-secundum illud quoque, de quo semel in vita Crassum ait risisse Lucilius: "semilem habent labra lactucam asino cardus comedente".

(idem, ibidem, 5)

Eltze honi, herriaren ahotan hainbeste dabilen esae-rak dioenez, estalki egokia ezarri zaio, Lupizino apezpikua, Luzilio-k Kraso-ri behin bizitzaldian barre eragin zion harako esanaren arauera: "Astoak karduak jaten baditu, dagokion uhaza ezpainetaratu".

7 **ESKUTITZAK (antxinatean)** : "Nam et rudes illi Italiae homines quos cascos Ennius appellat, qui sibi, ut in Rhetoricis Cicero ait, victu fero vitam requirebant, ante chartae et membranarum usum aut in dedolatis ex ligno codicellis aut in corticibus arborum mutua epistularum adloquia missitabant; unde et portatores earum tabellarios, et scriptores a libris arborum libenarios vocaverunt".

(8, "Ad Niceam Hypodiam Aquileiae",)

Italia-ko gizon menditar haiek, Ennio-k kaskoak deiturikoek, eta, Kikero-ren Rhetorikan esaten denez, basapiztien jakiez elikatzen zirenek, papera eta pergamino erabiltzen hasi baino lehen, elkarri berriak gutu netan bidaltzen zizkioten, edo zurezko orri finduetan edo zuhaitzen azaletan. Horregatik haien eramaleak tabelariak eta idazleak, zuhaitzen liber edo azalagatik, libreroak deituak izan ziren.

● Zurezko orritxook, tabellae ziren; hortik tabelari izena. Azal berbak ez du liber-ekin antzik; horregatik ezin da egin liber=librero hitz-jokoa gure hizkuntzaz.

8 **GREKOAK-JAKINTSUAK**: "Doctissimi quique Graecorum,
de quibus pro Flacco agens luculente Tullius ait:
"ingenita levitas et erudita vanitas".
(10, "Ad Paulum senem Concordiae", 3)

Grekoetakorik jakintsuenak, Flako-ren alde dihardue-
nean Tulio-k lasai baino lasaiago beraietaz bait di-
o: "berezko arinkeria eta harrokeria ikasia. (Pro Fla-
cco, 2. atala)

9 **PITXARRAREN USAINA**: "Sed nescio quomodo, etiam si a-
qua plena sit, tamen eundem odorem lagoena servat, quo
dum rudis esset inbuta est".
(idem, ibidem)

Ez dakit nola, baina urez beterik egon arren, pitxa-
rrak, egin berritan bota ziotenaren usain berbera du.

● Hona hemen Horatius-en pasartea osorik:

"Quo semel est inbuta recens, servavit odorem
Testa diu"... ..
(Horatius, Epistolarum liber I; Epistola II,
versus: 69-70)

(jarraitzeko)

— URREZKO HITZAK —

Εἰ γὰρ ὑλῶν ἀναισθήτων οὐ περιγινόμεθα, πῶς
τῶν ὀσμάτων περιεσόμεθα δυνάμεων;

"Eta gaiki ezerezak menperatzen ez baditu
gu, nola garaituko ditugu gorputzik gabeko
indarrak?"

S. Joan Krisostomo, "Mateo deunari buruzko
homiliak"; IX, 6)

Jon Gotzon Etxebarria
Gernika
